



# ABESTIEN LETRAK



# BASERRIKO KOMERIAK

## EGILEA:

**Nerea Urbizu**

## ABESLARIAK:

**Itxaso Onsalo,  
Nerea Sorondo,  
Amaia Garcia**

BASERRIA TA BERE INGURUA ABENTURAZ DAGO JOSIA.  
BASERRIAN TA BERE INGURUAN MILA KOMERIA!

BEHIAK ERLAUNTZAN DAUDE, ERLEAK UKUILUAN,  
KATUAK ERREKAN URETAN, HAU NAHASTEA.

BASERRIA TA BERE INGURUA ABENTURAZ DAGO JOSIA.  
BASERRIAN TA BERE INGURUAN MILA KOMERIA!

OILOAK IRRINTZIKA, ZALDIAK KOKOROKA  
KURRIN-KURRIN MENDI TXAKURRA, HAU NAHASTEA.

BASERRIA TA BERE INGURUA ABENTURAZ DAGO JOSIA.  
BASERRIAN TA BERE INGURUAN MILA KOMERIA!

BASERRIA TA BERE INGURUA ABENTURAZ DAGO JOSIA.  
BASERRIAN TA BERE INGURUAN MILA KOMERIA!

ASTO ARRANTZALEA, AHATE BELARRILUZZEA,  
AHUNTZAREN ADARRAK NON DIRA? HAU NAHASTEA.

BASERRIA TA BERE INGURUA ABENTURAZ DAGO JOSIA.  
BASERRIAN TA BERE INGURUAN MILA KOMERIA! (BERRIZ)



# PANDATXO

**EGILEA:**  
**Urko Oskoz**

**ABESLARIA:**  
**Unai Laso**

PANDA KATUA BAI BIHURRIA,  
ASKARIA LAPURTU DIT.  
PANDA KATUA ORAIN BERRIA  
PRESTATU BEHARKO DUT NIK.

PANDA, PANDATXO, ASKO MAITE ZAITUT,  
PANDA, PANDATXO, AZKARRA ZARA ZU.  
PANDA, PANDATXO, AZKARRA ZARA ZU,  
PANDA, PANDATXO, ASKO MAITE ZAITUT.

IZOZKIA, JANGO DUT BAI,  
BAINA EZ NAZALA IKUSI,  
BESTELA PANDAK KENDU NAHIKO DIT,  
NIRE GAINERA EGINGO DU JAUZI.

IZOZKIA, JANGO DUT BAI!  
BAINA EZ NAZALA IKUSI  
BESTELA PANDAK KENDUKO NAHIKO DIT,  
NIRE GAINERA EGINGO DU JAUZI.

PANDA, PANDATXO, ASKO MAITE ZAITUT,  
PANDA, PANDATXO, AZKARRA ZARA ZU.  
PANDA, PANDATXO, AZKARRA ZARA ZU,  
PANDA, PANDATXO, ASKO MAITE ZAITUT.

PANDA, PANDA, PANDA PANDA, PANDA PANDA JE, JE  
PANDA, PANDA, PANDA PANDA, PANDA PANDA JE, JE

PANDA, PANDATXO, AZKARRA ZARA ZU.  
PANDA, PANDATXO, ASKO MAITE ZAITUT.



# LURRETIK AHORA, ERRIGORA!

## EGILEA:

**Nerea Urbizu**

## ABESLARIAK:

**Saioa Crespo,  
Graciabel Caro,  
Maite Pellejero**

ERRIGORA,  
ERRIGORA, LURRETIK AHORA,  
TA\_EUSKAL HERRI OSORA.

TALDELANA OINARRI, LAGUNDUZ ELKARRI,  
ERRIBEHERA MUGARRI, ERRIGORA ALDARRI

ERRIGORA, LURRETIK AHORA,  
BARATZETIK KUTXARA,  
ERRIGORA, LURRETIK AHORA,  
BEHETIK GORA.  
ERRIGORA, LURRETIK AHORA,  
BARATZETIK KUTXARA,  
ERRIGORA, LURRETIK AHORA,  
TA\_EUSKAL HERRI OSORA.

AUZOLANA AUZOLAN, EKIMEN HERRITARRA.  
EUSKARA DA HAIEN ILUSIOA ETA INDARRA.

ERRIGORA, LURRETIK AHORA,  
BARATZETIK KUTXARA,  
ERRIGORA, LURRETIK AHORA,  
BEHETIK GORA.  
ERRIGORA, LURRETIK AHORA,  
BARATZETIK KUTXARA,  
ERRIGORA, LURRETIK AHORA,  
TA\_EUSKAL HERRI OSORA.

ENTSALADA KOLORETSU TA OSASUNTSUAK  
ERRIGORA EKIMENAREN OPARI DIRA.

AGER BAILARA LORATU DA, AGERRALDIA.  
EUSKARA BULTZATU, SUSTATU, SARETU  
NAHIAN.  
GURE ESPARRU GUZTIETARA HELDU DA  
AGERRALDIA.

ERRIGORA, LURRETIK AHORA,  
BARATZETIK KUTXARA,  
ERRIGORA, LURRETIK AHORA,  
BEHETIK GORA.  
ERRIGORA, LURRETIK AHORA,  
BARATZETIK KUTXARA,  
ERRIGORA, LURRETIK AHORA,  
TA\_EUSKAL HERRI OSORA,  
TA\_EUSKAL HERRI OSORA!  
ERRIGORA!



# PLISTI TA PLASTA

**EGILEA:**  
**Nerea Urbizu**

**ABESLARIA:**  
**Eneko Yarza**

PLISTI TA PLASTA  
URAREKIN JOLASEAN  
PLASTA TA PLISTI  
BUSTI ETA BUSTI!

PLISTI TA PLASTA  
URAREKIN JOLASEAN.  
PLASTA! PLISTI!  
BUSTI ETA BUSTI.  
PLASTA! PLISTI!  
BUSTI ETA BUSTI.

IBAIAN TXIPI-TXAPAK  
HARRI TXAPALENEKIN.  
ERREKA ZEHARKATU  
HARRI HANDIEN GAINETIK.

BETAURREKOAK BURUAN JARRI,  
HONDOAN ZER DAGOEN IGARRI!  
HARRIAK URRUN BOTA,  
HORI DA HORI JAURTIKETA!

PLISTI TA PLASTA  
URAREKIN JOLASEAN  
PLASTA TA PLISTI  
BUSTI ETA BUSTI!

PLISTI TA PLASTA  
URAREKIN JOLASEAN.  
PLASTA! PLISTI!  
BUSTI ETA BUSTI.  
PLASTA! PLISTI!  
BUSTI ETA BUSTI.

GORDEAK? EZKUTATUAK?  
NON DIRA ZAPABURUAK?  
PIRAGUAN IBILALDIA  
HAU BAI DIBERTIGARRIA!

IBAIAN TXIPI-TXAPAK  
HARRI TXAPALENEKIN.  
PIRAGUAN IBILALDIA  
HAU BAI DIBERTIGARRIA!

PLISTI TA PLASTA  
URAREKIN JOLASEAN  
PLASTA TA PLISTI  
BUSTI ETA BUSTI!

PLISTI TA PLASTA  
URAREKIN JOLASEAN.  
PLASTA! PLISTI!  
BUSTI ETA BUSTI.  
PLASTA! PLISTI!  
BUSTI ETA BUS... TI!



# ERLE POTOLOA

EGILEA:  
**Nerea Urbizu**

ABESLARIA:  
**Laura Villanueva**

ERLAUNTZAN BAZEN  
ERLE POTOLO BAT; HAIN POTOLOA,  
EZEN EZ ZEN ATERATZEN KALERA  
(BERRIZ).

ZER EGINGO DUZU  
ERLAUNTZAN EGUN OSOAN SARTUTA?  
LAGUNEK GALDETZEN ZIOTEN ALDIRO.

EZTIA JAN            **-JAN!**  
ASPERTU ARTE   **-TE!**  
LO EGIN               **-GIN!**  
BEGIRA EGON      **-GON!**  
ALE, AGUR         **-AGUR!!**

ERLAUNTZAN BAZEN  
ERLE POTOLO BAT, HAIN POTOLOA,  
EZEN EZ ZEN ATERATZEN KALERA  
(BERRIZ).

ZER EGINGO DUZU  
ERLAUNTZAN EGUN OSOAN SARTUTA?  
LAGUNEK GALDETZEN ZIOTEN ALDIRO.

EZTIA JAN            **-JAN!**  
ASPERTU ARTE   **-TE!**  
LO EGIN               **-GIN!**  
BEGIRA EGON      **-GON!**  
ALE, AGUR         **-AGUR!!**

HALAKO BATE(A)N  
ERLE POTOLOAK, KALERA IRTEN NAHI,  
BAINA EZIN ZUEN KALERA IRTEN!  
(BERRIZ)

-ZER EGINGO DUT  
ERLAUNTZAN EGUN OSOAN SARTUTA?  
GALDETZEN HASI ZEN LAGUNEI.

EZTIA JAN            **-JAN!**  
ASPERTU ARTE   **-TE!**  
LO EGIN               **-GIN!**  
BEGIRA EGON      **-GON!**  
HORI AKASO?      **SO, SOO!**

MMMM, AJA! PREST? AAAAAAAA!!!

SARRERA BERAZ HANDITU EGIN ZUTEN  
DENEN LAGUNTZAZ,  
TA EZ ZEN BERRIZ SARTU  
ERLAUNTZARA.

NON BIZI DA ORAIN ERLE POTOLOA?  
POZIK BIZI DA LORE GORRI EDER BATEN  
GAINEAN. HARA!



# ESPAGETIEN SALTSA

**EGILEA:**  
**Urko Oskoz**

**ABESLARIA:**  
**Oihan Vega**

PIRI PI PIRI, PIRI PI PIRI,  
PIRI PI PIRI, PIRIRI PI PI PIPIRI!

ETA TXALOKA JIRA BUELTA EMAN.

NIRE GORPUTZA BAI ABERATSA,  
NIRE GORPUTZA ESPAGETIEN SALTSA!  
NIRE GORPUTZA BAI ABERATSA:  
NIRE GORPUTZA, EGIN DEZAGUN DANTZA!

NIRE GORPUTZA BAI ABERATSA,  
NIRE GORPUTZA ESPAGETIEN SALTSA!  
NIRE GORPUTZA BAI ABERATSA:  
NIRE GORPUTZA, EGIN DEZAGUN DANTZA!

BEGIAK, SUDURRA, AHOA,  
BELARRIAK ALBOETAN.  
BEGIAK, SUDURRA, AHOA  
ETA TXALOKA JIRA BUELTA EMAN.

NIRE GORPUTZA BAI ABERATSA,  
NIRE GORPUTZA ESPAGETIEN SALTSA!  
NIRE GORPUTZA BAI ABERATSA:  
NIRE GORPUTZA, EGIN DEZAGUN DANTZA!

ILEA, BEKAINAK, EZPAINAK  
ETA EUSKARA MINGAINEAN  
ILEA, BEKAINAK, EZPAINAK  
ETA TXALOKA JIRA BUELTA EMAN.

NIRE GORPUTZA BAI ABERATSA,  
NIRE GORPUTZA ESPAGETIEN SALTSA!  
NIRE GORPUTZA BAI ABERATSA:  
NIRE GORPUTZA, EGIN DEZAGUN DANTZA!

ESKUAK, BESOAK, HANKAK  
ETA ATZEAN IPURDIA.  
ESKUAK, BESOAK, HANKAK  
ETA TXALOKA JIRA BUELTA EMAN.

HATZAREN PUNTAN AZAZKALA  
ETA OINETAN HAMAR BEHATZ.  
HATZAREN PUNTAN AZAZKALA  
ETA TXALOKA JIRA BUELTA EMAN.

NIRE GORPUTZA BAI ABERATSA:  
NIRE GORPUTZA, EGIN DEZAGUN DANTZA!

BEGIAK, SUDURRA, AHOA,  
BELARRIAK ALBOETAN.  
BEGIAK, SUDURRA, AHOA  
ETA TXALOKA JIRA BUELTA EMAN.

ILEA, BEKAINAK, EZPAINAK  
ETA EUSKARA MINGAINEAN  
ILEA, BEKAINAK, EZPAINAK

[kaixo@enekantak.org](mailto:kaixo@enekantak.org) | [www.enekantak.org](http://www.enekantak.org)

[Facebook](#) · [Youtube](#) · [Instagram](#) · [Twitter](#) · [Spotify](#)



# BILIBILI BONBOLO

**ABESTIA:**  
**herrikoia**

**ABESLARIA:**  
**Ihitz Iriart**

BILIBILI BONBOLO SENDAL LO  
AKERRA FRANTZIAN BALEGO  
AKERRAK KANTA, IDIAK DANTZA  
AHUNTZAK DANBOLINA JO.  
AKERRAK KANTA, IDIAK DANTZA  
AHUNTZAK DANBOLINA JO.

DANBORE BERRI-BERRIA  
DONOSTIATIK EKARRIA.  
BAZTERRAK DITU PERLA XURIAK  
ERDIAN URRE GORRIA,  
HAREN ZINTATXO HOBERENA DA  
ABARKA SOKA LODIA.

BINBILI BONBOLO SENDAL LO  
AKERRA FRANTZIAN BALEGO,  
AKERRAK KANTA, IDIAK DANTZA  
AHUNTZAK DANBOLINA JO (BIS)

BILIBILI BONBOLO SENDAL LO  
AKERRA FRANTZIAN BALEGO  
AKERRAK KANTA, IDIAK DANTZA  
AHUNTZAK DANBOLINA JO.  
AKERRAK KANTA, IDIAK DANTZA  
AHUNTZAK DANBOLINA JO.

DANBORE BERRI-BERRIA  
DONOSTIATIK EKARRIA.  
BAZTERRAK DITU PERLA XURIAK  
ERDIAN URRE GORRIA,  
HAREN ZINTATXO HOBERENA DA  
ABARKA SOKA LODIA.

BINBILI BONBOLO SENDAL LO  
AKERRA FRANTZIAN BALEGO,  
AKERRAK KANTA, IDIAK DANTZA  
AHUNTZAK DANBOLINA JO (BIS)





# LIBURUTEGI BAT

## EGILEA:

**Urko Oskoz**

## ABESLARIA:

**Gorka Pastor**

LIBURUTEGI BAT AUZOAN  
LIBURUTEGI BAT HERRIAN  
LIBURUTEGI BAT ESKOLAN  
LIBURUTEGIA, LIBURUTEGIA (BERRIZ)

MAMUAK AGERTU ZAIZKIGU, TXIMELETA BELARRIAK,  
PIRATEN EZPATA ZORROTZAK, ABENTURAK TA BELDURRAK.  
BREMENGO LAU ANIMALIEK LAPURRAK BOTA DITUZTE,  
TA ESTRALURTARREK ZARAUTZEN UNAI ERAMAN NAHI DUTE.

LIBURUTEGI BAT AUZOAN  
LIBURUTEGI BAT HERRIAN  
LIBURUTEGI BAT ESKOLAN  
LIBURUTEGIA, LIBURUTEGIA (BERRIZ)

MAKILAKIXKI, SORGINAK, PIPPI, PATXI ERREMENTARI,  
NUR, ASTERIX TA MOANA, AMETSETAKO GUDARI.  
ERREKAMARI LAMIAREN ABESTIA ENTZUTEKO  
IBAIK GARBITU BEHAR DIRA MARTIN ALAI EGOTEKO.

DUBIDUBI, DUBI DUBA  
DUBIDUBI DUBI DUBI DUBI DUBA (BERRIZ)

LIBURUTEGI BAT AUZOAN  
LIBURUTEGI BAT HERRIAN  
LIBURUTEGI BAT ESKOLAN  
LIBURUTEGIA, LIBURUTEGIA

HIZKIAK ETA MARRAZKIAK ELKARTZEN DITUGUNEAN  
AMETSAK EGIA BIHURTZEN ZAIZKIGU BAI BIHOTZEAN.  
HIZKIAK ETA MARRAZKIAK ELKARTZEN DITUGUNEAN  
AMETSAK EGIA BIHURTZEN ZAIZKIGU BAI BIHOTZEAN.



# MISTERIO HANDI BAT

**EGILEA:**

**Nerea Urbizu**

**ABESLARIA:**

**Ana Telletxea**

KONTATUKO DIZUET GERTATUTAKOA:  
MISTERIO HANDI BAT, HANDI-HANDI BAT!  
AMONAREN ETXEAN AURKITU NUEN,  
HARRITUTA ORAINDIK JAZOTAKOAREKIN.  
ZER OTE, ZER OTE ZER DA?  
ZER OTE, ZER OTE ZER DA?  
ZER OTE, ZER OTE, ZER OTE?

KAXA MISTERIOTSU BAT IKUSI NUEN  
HAUTSEZ ESTALIRIK, GANBARAN GORDERIK.  
IREKI EGIN NUEN, TA HORRA EZUSTEA:  
KANTARI HASI ZEN, IREKI ORDUKO.  
NOLA BA, NOLA BA, NOLA?  
NOLA BA, NOLA BA, NOLA?  
NOLA BA, NOLA BA, NOLA BA?

BATERIARIK EZ, EZTA PILARIK ERE.  
KABLEA BEHARBADA, BAINA ARRASTORIK EZ.  
HAU DA MISTERIOA, SORGINKERIA!  
IZEN BAT JARRI DIOT: JAKIN NAHI AL DUZUE?  
MUSIKA, MUSIKA KAXA,  
MUSIKA, MUSIKA KAXA.  
MUSIKA, MUSIKA KAXA.  
MUSIKA... MUSIKA KAXA.  
MUSIKA, MUSIKA KAXA,  
MUSIKA, MUSIKA KAXA.  
MUSIKA, MUSIKA KAXA.  
MUSIKA... MUSIKA KAXA.



# ASTEKO EGUNAK

**EGILEA:**

**Nerea Urbizu**

**ABESLARIA:**

**Amaia Olano (Trikiteens)**

A, A, A!

ASTELEHENA, DA LEHENA  
ASTEARTEA, BIGARRENA,  
ASTEAZKENA HIRUGARRENA:  
ASTELEHENA, ASTEARTEA, ASTEAZKENA,  
ASTELEHENA, ASTEARTEA, ASTEAZKENA.

O, O, LI!

OSTEGUNA, LAUGARRENA,  
OSTIRALA, BOSGARRENA,  
LARUNBATA DA SEIGARRENA,  
OSTEGUNA, OSTIRALA, LARUNBATA  
ETA ASTEKO AZKENA DA IGANDEA!

A, A, A, O, O, LI!!

ASTELEHENA, DA LEHENA  
ASTEARTEA, BIGARRENA,  
ASTEAZKENA HIRUGARRENA  
OSTEGUNA, OSTIRALA, LARUNBATA  
ETA ASTEKO AZKENA DA IGANDEA!

DENAK JARRAIAN!

ASTELEHENA, ASTEARTEA,  
ASTEAZKENA, OSTEGUNA,  
OSTIRALA, LARUNBATA,  
ETA ASTEKO AZKENA DA IGANDEA!  
IKASI DITUGU ASTEKO EGUNAK.

ASTELEHENA, ASTEARTEA,  
ASTEAZKENA, OSTEGUNA,  
OSTIRALA, LARUNBATA,  
ETA ASTEKO AZKENA DA IGANDEA!  
IKASI DITUGU ASTEKO EGUNAK.



# ERAGIN ESKUEI

**EGILEA:**  
**Nerea Urbizu**

**ABESLARIA:**  
**Nerea Alias**

ERAGIN, ERAGIN, ESKUEI ERAGIN.  
ERAGIN, ERAGIN, BAIETZ ASMATU NOLA EGIN.  
ONDOKOAREKIN JOLASTUZ EGIZU TXALO,  
HELDU BESOTIK ETA PENTSATU ZER EGIN:

-HIRU KRISKITIN!  
ERAGIN, ERAGIN, ESKUEI ERAGIN.  
ERAGIN, ERAGIN, BAIETZ ASMATU NOLA EGIN.  
ONDOKOAREKIN JOLASTUZ EGIZU TXALO,  
HELDU BESOTIK ETA PENTSATU ZER EGIN:

-SALTO, SALTO, SALTO  
ERAGIN, ERAGIN, ESKUEI ERAGIN.  
ERAGIN, ERAGIN, BAIETZ ASMATU NOLA EGIN.  
ONDOKOAREKIN JOLASTUZ EGIZU TXALO,  
HELDU BESOTIK ETA PENTSATU ZER EGIN:

-HIRU IPURDIKO  
ERAGIN, ERAGIN, ESKUEI ERAGIN.  
ERAGIN, ERAGIN, BAIETZ ASMATU NOLA EGIN.  
ONDOKOAREKIN JOLASTUZ EGIZU TXALO,  
HELDU BESOTIK ETA PENTSATU ZER EGIN:

-HIRU BOSTEKO  
ERAGIN, ERAGIN, ESKUEI ERAGIN.  
ERAGIN, ERAGIN, BAIETZ ASMATU NOLA EGIN.  
ONDOKOAREKIN JOLASTUZ EGIZU TXALO,  
HELDU BESOTIK ETA PENTSATU ZER EGIN:

-UKABILAK GORA  
ERAGIN, ERAGIN, ESKUEI ERAGIN.  
ERAGIN, ERAGIN, BAIETZ ASMATU NOLA EGIN.  
ONDOKOAREKIN JOLASTUZ EGIZU TXALO,  
HELDU BESOTIK ETA PENTSATU ZER EGIN:

-IXA HANDI BAT  
ERAGIN, ERAGIN, ESKUEI ERAGIN.  
ERAGIN, ERAGIN, BAIETZ ASMATU NOLA EGIN.  
ONDOKOAREKIN JOLASTUZ EGIZU TXALO,  
HELDU BESOTIK ETA PENTSATU ZER EGIN:

-DENAK JARRAIAN!  
HIRU KRISKITIN! SALTO, SALTO, SALTO! HIRU IPURDIKO! HIRU BOSTEKO! UKABILAK  
GORA! IXA HANDI BAT!

[kaixo@enekantak.org](mailto:kaixo@enekantak.org) | [www.enekantak.org](http://www.enekantak.org)

[Facebook](#) · [Youtube](#) · [Instagram](#) · [Twitter](#) · [Spotify](#)



# GAIZKI EGINEZ

## EGILEA:

**Urko Oskoz**

## ABESLARIA:

**Asier Burguete**

INOR EZ DA JAIO JAKINTSU  
ERORI GERO ALTXATU.  
NAHI BADUZU LORTUKO DUZU,  
EZ AMORERIK EMAN.

INOR EZ DA JAIO ADITU,  
ERORI GERO ALTXATU.  
NAHI BADUZU LORTUKO DUZU,  
BETI AURRERA EGIZU.

TXAPELDUNAK, TXAPELDUNAK,  
ONENAK GARA GU.  
TXAPELDUNAK, TXAPELDUNAK,  
ONGI PASA DUGU.  
TXAPELDUNAK, TXAPELDUNAK,  
ONENAK GARA GU.  
TXAPELDUNAK, TXAPELDUNAK,  
IRRIBARREA DUGU.

AURKITU ZURE IZARRA:  
ZEIN DA ZURE PASIOA?  
GRINA HORREKIN HELBURUA  
BETI LORTUKO DUZU.  
AURKITU ZURE INDARRA:  
ZEIN DA ZURE PASIOA?  
GRINA HORREKIN HELBURUA  
ESKUETAN DAUKAZU.

TXAPELDUNAK, TXAPELDUNAK,  
ONENAK GARA GU.  
TXAPELDUNAK, TXAPELDUNAK  
ONGI PASA DUGU.

TXAPELDUNAK, TXAPELDUNAK,  
IRRIBARREA DUGU.  
IRRIBARREA DUGU.

GAIZKI EGIN BEHIN ETA BERRIZ  
ETA IKASIKO DUZU.  
ERORI, ERORI, ETA HOBETUKO DUZU.  
GAIZKI EGIN BEHIN ETA BERRIZ  
ETA IKASIKO DUZU.  
ERORI, ERORI, ETA HOBETUKO DUZU.

TXAPELDUNAK, TXAPELDUNAK,  
ONENAK GARA GU.  
TXAPELDUNAK, TXAPELDUNAK,  
ONGI PASA DUGU.  
TXAPELDUNAK, TXAPELDUNAK,  
ONENAK GARA GU.  
TXAPELDUNAK, TXAPELDUNAK,  
IRRIBARREA DUGU.  
IRRIBARREA DUGU.



# ASKOTAN ERABILI

**EGILEA:**  
**Nerea Urbizu**

**ABESLARIA:**  
**Maite Perurena**

ZER EGINGO ZENUKETE BA,  
ZAHARTU DEN HONEKIN?  
ZAKARRETARA BOTA BAINO LEHEN  
ENTZUN ARRETAZ:  
HONA NIRE PROPOSAMENA,  
JARRI DANTZAN IRUDIMENA.  
ESKULANAK, MOZORROREN BAT,  
GUK NAHI DUGUNA.

BERRERABILI, ASKOTAN ERABILI  
BERRERABILI, ASKOTAN ERABILI:  
ARROPAK, TRESNAK,  
GUZTIZ PUSKATU ARTE.

ZER EGINGO ZENUKETE BA,  
ZAHARTU DEN HONEKIN?  
ZAKARRETARA BOTA BAINO LEHEN  
ENTZUN ARRETAZ:  
ARTAZIAK HARTU TA MOZTU,  
PETATXU BAT AURREAN.  
ARTAZIAK HARTU TA MOZTU,  
PETATXU BAT ATZEAN.

BERRERABILI, ASKOTAN ERABILI  
BERRERABILI, ASKOTAN ERABILI  
ARROPAK, TRESNAK  
GUZTIZ PUSKATU ARTE. (BERRIZ)

ZER EGINGO ZENUKETE BA,  
ZAHARTU DEN HONEKIN?  
ZAKARRETARA BOTA BAINO LEHEN  
ENTZUN ARRETAZ:  
HONA NIRE PROPOSAMENA,  
JARRI DANTZAN IRUDIMENA.  
ESKULANAK, MOZORROREN BAT,  
GUK NAHI DUGUNA.

BERRERABILI, ASKOTAN ERABILI  
BERRERABILI, ASKOTAN ERABILI  
ARROPAK, TRESNAK  
GUZTIZ PUSKATU ARTE. (BERRIZ)

[kaixo@enekantak.org](mailto:kaixo@enekantak.org) | [www.enekantak.org](http://www.enekantak.org)

[Facebook](#) · [Youtube](#) · [Instagram](#) · [Twitter](#) · [Spotify](#)



# ERLEAK

**EGILEA:**  
**Nerea Urbizu**

**ABESLARIAK:**  
**Koban**

BI ANTENA, SEI HANKA, LAU HEGAL ETA TRONPA?  
ZEIN OTE DA ANIMALIA HAU?

BI ANTENA, SEI HANKA, LAU HEGAL ETA TRONPA?  
ZEIN OTE DA, ZEIN OTE, ANIMALIA HAU?

HEGALAK ASTINDUZ LOREZ LORE DABIL,  
EZTIA EGITEKO, PROPOLI ETA GUZTI.  
POLENA ZABALDUZ BIDAIA OSOAN ZEHAR  
NATURA BERRITUZ AZKAR ETA ABIL! BIL!

BI ANTENA, SEI HANKA, LAU HEGAL ETA TRONPA?  
ZEIN OTE DA, ZEIN OTE, ANIMALIA HAU? (BERRIZ)

HEGALAK ASTINDUZ, LOREZ LORE DABIL  
JELEA EGITEKO, PROPOLI ETA GUZTI  
ERLAUNTZATIK KALERA KALETIK ERLAUNTZARA  
NATURA BERRITUZ AZKAR ETA ABIL! BIL!

ZZZZZZZZZZZ, ZZZZZZZZZZZZZZ.

BI ANTENA, SEI HANKA, LAU HEGAL ETA TRONPA?  
ZEIN OTE DA, ZEIN OTE, ANIMALIA HAU?

HEGALAK ASTINDUZ LOREZ LORE DABIL,  
EZTIA EGITEKO, PROPOLI ETA GUZTI.  
POLENA ZABALDUZ BIDAIA OSOAN ZEHAR  
NATURA BERRITUZ AZKAR ETA ABIL! BIL!

BI ANTENA, SEI HANKA, LAU HEGAL ETA TRONPA?  
ZEIN OTE DA, ZEIN OTE, ANIMALIA HAU? (BERRIZ)



# ASKARI HANDIA

**EGILEA:**  
**Nerea Urbizu**

**ABESLARIA:**  
**Nerea Urbizu**

ZUGARRAMURDIKO LEIZEAN  
ASKARI HANDIA DUGU:  
BASAJAUNEN URTEBETETZEA  
OSPATUKO DUGU GAURKOAN (BIS)

MARI, GAUBELA GOXOA EMAN!  
AMALUR, ZER DAGO ASKALTZEKO?  
EGUZKILORE BAT JARRI ATARIAN GU BABESTEKO!

ZUGARRAMURDIKO LEIZEAN  
ASKARI HANDIA DUGU:  
BASAJAUNEN URTEBETETZEA  
OSPATUKO DUGU GAURKOAN. (BIS)

GONBIDATUAK NON SARTU DIRA?  
LANEAN DIRA GALTZAGORRIAK.  
IRATXO BAI BIHURRIA! EZ EZKUTATU JANARIA.

SORGINEK ZUKUA PRESTATU DUTE.  
LAMIEK MAMIA EKARRI DUTE.  
AIDEKO EZ HASI! ARREN, EZ ITZALI KANDELAK.

ZUGARRAMURDIKO LEIZEAN  
ASKARI HANDIA DUGU:  
BASAJAUNEN URTEBETETZEA  
OSPATUKO DUGU GAURKOAN (BIS)





# AKROMATA NAIZ

**EGILEA:**  
**Urko Oskoz**

**ABESLARIA:**  
**Tiko**

ERITASUN TXIKI BAT DUT,  
TXIKIA BEZAIN ARRAROA,  
ARRAROA ETA GRISA:  
A-KRO-MATA NAIZ. A-KRO-MA-TA.

ORTZADARRA BEREZIA,  
BEREZIA TA BAKARRA,  
NIRETZAT BI KOLOREREKIN,  
A-KRO-MATA NAIZ  
A-KRO-MA-TA. A-KRO-MA-TA.

TXURI TA BELTZA IKUSTEN DUT NIK BIZITZA,  
NIRE MUNDUA, GRISEN MUNDUA.  
ARGI IZPIETATIK IHESI DABILTZA  
NIRE BEGIAK, HAU DA HAU MINA.  
MMM PIRI, PIRI, PIRI. EZINEGONA. PIRI, PIRI, PIRI, PIRI.

TXURI TA BELTZA IKUSTEN DUT NIK BIZITZA,  
NIRE MUNDUA, GRISEN MUNDUA.  
ESPIONEN ANTZERA BETAURREKOEKIN  
ILUNTASUNA, BABESLEKU.  
MMM PIRI, PIRI, PIRI. EZINEGONA. PIRI, PIRI, PI, PI, PI.

KOLOREAK EZ DU BETI ZORIENTASUNA EMATEN,  
KOLOREAK EZ DU BETI NIRE IRRIA MARGOTZEN.  
KOLOREAK EZ DU BETI ZORIENTASUNA EMATEN,  
KOLOREAK EZ DU BETI NIRE BIZITZA MARGOTZEN. EZINEGONA.

ERITASUN TXIKI BAT DUT,  
TXIKIA BEZAIN ARRAROA,  
ARRAROA ETA GRISA:  
A-KRO-MATA NAIZ.

ERITASUN TXIKI BAT DUT,  
TXIKIA BEZAIN ARRAROA,  
ARRAROA ETA GRISA:  
A-KRO-MATA NAIZ. A-KRO-MA-TA. A-KRO-MA-TA.

**ES** TENGO UNA PEQUEÑA ENFERMEDAD,  
TAN PEQUEÑA COMO RARA,  
RARA Y GRIS:  
SOY ACROMATA

UN ARCOIRIS ESPECIAL,  
ESPECIAL Y ÚNICO,  
EN MI CASO DIBUJADO CON DOS COLORES.  
SOY ACROMATA

LA VIDA LA VEO EN BLANCO Y NEGRO  
MI MUNDO, EL MUNDO DE LOS GRISES  
ME ESCONDO DE LOS RAYOS DEL SOL,  
LA LUZ EN MIS OJOS, UFF QUÉ MOLESTO!  
PIRI, PIRI, PIRI, QUÉ INCOMODIDAD! PIRI, PIRI, PIRI, PIRI.

LA VIDA LA VEO EN BLANCO Y NEGRO  
MI MUNDO, EL MUNDO DE LOS GRISES  
COMO LOS ESPIAS, CON MIS GAFAS  
LA OSCURIDAD ES MI REFUGIO  
PIRI, PIRI, PIRI, QUÉ INCOMODIDAD! PIRI, PIRI, PIRI, PIRI.

EL COLOR NO DA SIEMPRE LA FELICIDAD  
EL COLOR NO DIBUJA SIEMPRE MI SONRISA  
EL COLOR NO DA SIEMPRE LA FELICIDAD  
EL COLOR NO DIBUJA MI VIDA  
PIRI, PIRI, PIRI, QUÉ INCOMODIDAD! PIRI, PIRI, PIRI, PIRI.



# HORTZAK GARBITZERA

**EGILEA:**  
**Nerea Urbizu**

**ABESLARIA:**  
**Nerea Urbizu**

HORTZAK GARBITZERA, HORTZAK GARBITZERA, GOAZEN DENOK, HORTZAK GARBITZERA.  
HORTZAK GARBITZERA, HORTZAK GARBITZERA, GOAZEN DENOK, HORTZAK GARBITZERA.  
HARTU ESKUILA, HARTU ESKUILA, GOAZEN DENOK PASTA JARTZERA.  
HARTU ESKUILA, HARTU ESKUILA, GOAZEN DENOK PASTA JARTZERA.

GARBITU DEZAGUN GURE IRRIBARREA,  
GARBITU DITZAGUN ZIRRIKITU GUZTIAK.  
GARBITU DEZAGUN GURE IRRIBARREA,  
HORTZAK GARBITUZ, XOMORRO IZPIRIK EZ.

GARBITU DITZAGUN KONTRAKOA ERANTZUNEZ!!!

GOITIK BEHERA, BEHETIK GORA; BOROBILEAN, ZUZEN-ZUZEN,  
EZKER-ESKUIN, ESKUIN-EZKER, AURREKOAK, ATZEKOAK.

GARBITU DEZAGUN GURE IRRIBARREA,  
GARBITU DITZAGUN ZIRRIKITU GUZTIAK.  
GARBITU DEZAGUN GURE IRRIBARREA,  
HORTZAK GARBITUZ, XOMORRO IZPIRIK EZ.

KONTRAKO GEHIAGO!!!

HANDIENAK, TXIKIENAK; ZIKINENAK, GARBIENAK.  
ZULO HANDIAK, ZULO TXIKIAK; ALDE BATERA, ETA BESTERA.

GARBITU DEZAGUN GURE IRRIBARREA,  
HORTZAK GARBITUZ, XOMORRO IZPIRIK EZ.

ETA ORAIN DANTZATZEN!!!

GOITIK BEHERA, BEHETIK GORA; BOROBILEAN, ZUZEN-ZUZEN,  
EZKER-ESKUIN, ESKUIN-EZKER, AURREKOAK, ATZEKOAK.

GARBITU DEZAGUN GURE IRRIBARREA,  
GARBITU DITZAGUN ZIRRIKITU GUZTIAK.  
GARBITU DEZAGUN GURE IRRIBARREA,  
HORTZAK GARBITUZ, XOMORRO IZPIRIK EZ.

ETA MINGAINA ERE BAI!

RA, RA, RA (RA-RA!), RA, RA, RA (RA-RA-RA!).



# TIBIRUN BONBON

**EGILEA:**  
**Nerea Urbizu**

TIBIRUN BONBON...  
TIBIRUN BONBON...

**ABESLARIA:**  
**Nerea Urbizu**

TIBIRUN BONBON  
IRITSI DA  
TIBIRUN BONBON  
EGUBERRIA. (BERRIZ)

AMALURRAK LOTAN JARRAITZEN DU, NEGUAN GAUDE ETA.  
SU EDER BAT EGINO DUGU SUBILAROAREN LAGUNTZAZ.

TIBIRUN BONBON  
IRITSI DA  
TIBIRUN BONBON  
EGUBERRIA (BERRIZ)

GAZTAIN ERREAK TXIPLI-TXAPLA-PUN, NEGUAN GAUDE ETA.  
ESKU HOTZ HAUEK BEROTZEKO GUZTIAK JANGO DITIGU.

TIBIRUN BONBON  
IRITSI DA  
TIBIRUN BONBON  
EGUBERRIA (BERRIZ).

MARA-MARA\_ARIKO DU ELURRA, NEGUAN GAUDE ETA.  
LERA HARTU ETA ALDAPAK ZIZTUAN JAITSIKO DITUGU

TIBIRUN BONBON  
IRITSI DA  
TIBIRUN BONBON  
EGUBERRIA (BERRIZ).

MARI DOMINGI TA OLENTZERO, NEGUAN GAUDE ETA.  
BESARKADA BANA BIENTZAT, OPAROTASUNA DENONTZAT!

TIBIRUN BONBON...  
TIBIRUN BONBON...

TIBIRUN BONBON  
IRITSI DA  
TIBIRUN BONBON  
EGUBERRIA (4 ALDIZ)

[kaixo@enekantak.org](mailto:kaixo@enekantak.org) | [www.enekantak.org](http://www.enekantak.org)

[Facebook](#) · [Youtube](#) · [Instagram](#) · [Twitter](#) · [Spotify](#)